

BALOREZKO

PROPOSAMENA

Gure proiektuaren ezaugarri nagusiak hurrengoak izango dira.

- Prezio ekonomikoa Lea Artibaiko gure sektoreko enpresekin alderatuta.
- Energi iturri naturalak erabiltzen ditugu; eguzki energiaren hornitzea, eguzki plakak ezarri ditugu eta kontsumo baxuko LED bonbillak erabiltzen ditugu. Neguan baserriko tximinia erabiltzen dugu eta euria egiten duenean urak batzeko sistema bat ezarri dugu, gure hortua sasoi idorrean ureztatzeko.
- Garbitzeko erabiltzen ditugun produktu guztiak organikoak dira. Gela guztietan berziklaketa bultzatzeko ontzi ezberdinak ezarri ditugu. Komunetan xaboa duten ontziak jarri ditugu, plastikozko poteen erabilera murrizteko.
- Gure elikagaiak gure hortutik hartzen ditugu; hustiaketa ekologikoa egiten dugu, ez dugu pestizidarik erabiltzen. Oiloak ere baditugu, eta arrautzak bertatik hartzen ditugu.
- Erosi ditugun izarak material organikoz eginda daude.
- Gure bezeroei hemengo eta inguruko ohiturak, jaiak eta kultur ondarea ezaguraztea izango da gure helburua; horretarako gu izango gara ekintza horiek antolatzeke kudeatzaile. Horrela modu erraz baten ezagutuko dute gure ohiturak, gure jaiak eta gure bizimodua.

- Eraikin osoa ezinduentzako egokitua dago:
 - Itsuentzako: Hosteleko idatzi guztiak brailen idatzita egongo dira, komunetako xaboi poteak ere.
 - Gorrentzako: geletan argiekin bizten diren esnagailu bereziak ezarri ditugu.
 - Ez-gaitu fisikoentzako: ate eta espazio zabalak, ohe bereziak, eta sarreretan barrera arkitektoniko guztiak kendu ditugu. Guzti hau beheko plantan jarriko dugu.
- Aterpetxea 24 ordu egongo da zabalik.

